

Irabazi eta galdu

ETA-k bere atentatuen etena publiko egin zuenetik urtebete iragan denean, nonahi ikusi daitezke mugimenduak bakegintza eta normalizazio politikoaren eremuan. Ez beti eragile bakoitzak nahiko lukeen indar eta ikuspegiarekin, baina bai norabide bertsuan: ETaren ondorengo euskal gizartea eraiki behar da eta zeregin horretan egon behar da. Donostiako Udaleko PPko zinegotzi Borja Semperren hitzok, adibidez, norabide horretan daudela pentsa liteke: "ETak erabakitzen badu armak behin betiko uztea eta egindako mina onartzen badu, PPk izango du behar den abilezia guztion artean etorkizuna eraikitzeko" (DV, irailak 4). Hilaren bukaerako Eusko Legebiltzarreko politika orokorraren eztatanda ere hor dago eta Lopez lehendakariak prest duen proposamenaren ardatzak norabide hori izango du, jadanik iragarri duen moduan.

Bakegintzaren eduki ugari ari da azaleratzen eta jadanik argi ikusten da memoriarena eta iraganeko jardun politikoaren irakurketa bateratua izango direla ardatzetakoak, eta eragileak lanean ari direla esparru horretan. Gaur gaurko jarrerak bateraezinak dirudite, baina edozelako elkarbizitzarako azkenean ezinbestekoa izango da oinarritzeko irakurketa bateratua eraikitzea, ahalik eta kontsentsu handienaren gainean: zenbat eta puntu gehiagoren inguruko adostasuna, elkarbizitza hori samurragoa izango da; zenbat eta gutxiago, etorkizun gaitzagoa eta epe ertainean gatazkak berpizteko aukera handiagoak.

Memoriarenak duen garrantziaren lekuko da *El País*-ek azken egunotan zein temati ari den ETaren



Artamugarriak artista taldeak bake prozesuaren alde 2007an Bardeetan egindako ekintza.

amaieraren bere tesi nagusia hauspotzen: Estatuaren jarrera irmoak amaitu du ETarekin eta puntu, eta batez ere polizia ekimenak, ez dago besterik. Joan den irailaren 4ko eta 5eko egunkarietan gai nagusi gisa azaldu zituen egunkariak. Joan den igandean: "Poliziak inguratua du gaizkile taldea" (aurretitulua). "ETak 50 terrorista bakarrik ditu aktibo" (lehen orrialdeko titulu nagusia). Astelehenean: "Gaizkile taldea inguratua (aurretitulua)". "ETA zapatu dute eta poliziak badaki zeintzuk diren geratzen diren lauak" (titulu nagusia, ETako presoek hitzetan jarria). Doinu bertsuan ari dira Lopez lehendakaria eta Ares, eta haiek entzunda, badirudi inork ez lukeela zalantzarik izan behar ohartarazteko Eusko Jaurlaritzaren tinkotasuna zein erabakigarria izen den ETaren amaierako bidean.

Zalantzarik gabe, ikuspegi horrek badu bere arrazoia eta ukazina da

Estatuaren errepresioak ETaren amaieran duen garrantzia. Baina hor beste eragile asko ere badira eta horietako nagusia ezker abertzalearen baitako barne eztatanda. Eztabaida horretan ere Estatuaren errepresioa garrantzitsua izan dela? Bai, baina ez erabatekoa. Eta, azkenik, hori guztia garrantzitsua izanik ere, ez da funtsezkoena.

NON DA orduan iltzearen gakoa? ETaren jardueraren atzean bideratu beharreko arazo politiko batzuk direla onartzean eta horiek ere, lehenago edo geroago, jarduera politikora eraman behar direla. Eta hori txukun egiten bada, eraiki ahal izango da datozen hamarkadetako elkarbizitzaren bizkarrezurra, honakoa litzatekeena: etorkizunean ez da

berriz biolentziarik eta mehatxurik erabiliko helburu politikoen defentsan. Eta txukun egiteak esan nahi du bakoitzak bere akatsak onartu behar dituela, bitartekoen erabileran, biktimen eremuan, lorpen politikoen gauzatzean...

Baina bakarrik ETak eta ezker abertzaleak aitortu behar badituzte beren akatsak eta Estatuak dena ongi egin badu, hondarrezko gazteluak eraikiko dira. Hiltzaileak eta beren lagunen aurrean demokratek irabazi badute eta kito, jai dago. Bakea Estatuaren garaipenaren logikaren ikusmoldetik bakarrik egiten bada, elkarbizitzak nekez izango du zutabe sendorik. Itsua da hori hala ikusten ez duenak, eta etorkizuneko arazoek ereile. Halako prozesuetan beti galtzen da zerbait, eta asko irabazi. Zorionez, badirudi irabazle eta galtzaileen hainbat ikuspegi malgutzen ari dela apurka, baita publikoki ere.